



Materialen zientzia eta ingeniari-tza Hastapenak

William D. Callister Jr.

Materialen zientzia eta ingeniari-tza irakasteko aurreko edizioetan erabilitako helburuak eta hurbilketak mantendu ditut zazpigarren edizio honetan.

Lehen helburua, helburu nagusia, da kalkulua, kimika eta fisika ikasten hasi diren unibertsitateko ikasleei oinarriko printzipioak aurkeztea maila egoki batean. Helburu hori betetzeko, materialen zientzia eta ingeniari-tza lehen aldiz jorratzen duten ikasleei ezagun izango zaien terminologia erabiltzen ahalegindu naiz, baita termino ezezagun guztiak definitzen eta azaltzen ere.

Bigarren helburua da gaia ordena logiko batean aurkeztea, gai sinpleenetatik konplexuenera. Kapitulu bakoitza aurreko kapitulu-tako edukietan oinarritzen da.

Testu osoan mantentzen saiatu naizen hirugarren helburuaren, edo filosofiaren, arabera, gai edo kontzeptu bat lantzea merezi badu, orduan, behar adinako xehetasunez lantzea eta zabaltzea merezi du, ikasleek erabat uler dezaten beste iturri batzuetara jo behar izan gabe; orobat, kasu gehienetan, erlazio praktikoa batzuk aurkezten ditut. Azalpenak argiak eta zehatzak izatea eta ulermen-maila egokietatik abiatzea nuen helburu.

Laugarren helburua da ikaskuntza-prozesua arintzen duten ezaugarriak txertatzea liburuan. Hauek dira ikaskuntzarako laguntzak:

- Aurkezten den gaia irudikatzen laguntzen duten argazki eta irudi ugari, orain koloretan;
- Kapitulu bakoitzak dituen helburuak;
- “Zergatik aztertu...” eta “Material Garrantzitsuak” atalak, azalpenekin loturiko gaien garrantzia azaltzen dutenak;
- Termino gakoak eta ekuazio gakoak deskribapenak; marjinetan nabarmentzen dira, erraz identifikatzeko;
- Kapitulu-bukaerako galderak eta problemak;
- Problema aukeratuen erantzunak;
- Gaia errazago ulertzeko glosarioa, sinbolo-zerrenda eta erreferentziak.

Bosgarren helburua da irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesua hobetzea, gaur egun ingeniari-tzako irakasle eta ikasle gehienek eskura dituzten teknologia berriak erabiliz.

Jakintza-arloa / CDU:

TEKNOLOGIA (620)
INGENIARITZA (621)

ISBN: 978-84-9860-470-2

20,5 x 26 cm

850 orr.

PSP: 58,00 €

**EUSKAL HERRIKO
UNIBERTSITATEA**

Argitalpen Zerbitzua
1.397 posta-kutxatila
48080 BILBAO

Tfnoa.: 946 012 000

Faxa: 946 012 333

e-posta: editorial@ehu.es

<http://www.argitalpenak.ehu.es>

Banatzaileria:

ELKAR Banaketa

Portuetxe, 88

20018 DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

Tfnoa.: 943 311 821

Faxa: 943 310 453 / 943 310 452

e-posta: eskaerak@elkar.com

<http://www.elkar.com>

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ARGITALPEN
ZERBITZUA
SERVICIO EDITORIAL